

## Sarreratxo bat Nietzscheren pentsamendura

(Liburu osoa aurkitzeko: Jimenez, J./Olariaga, A. *Modernitatearen auziaz*. Jakinkizunak S.L. ISBN: 978-84-95234-40-7)

- 1) Nietzsche eta Schopenhauer izpirituaren historian
- 2) Nietzscheren testuinguru zientifiko eta politikoa
- 3) Hizkuntzaren kritika
- 4) Esperientzia estetikoak esperientzia tragikoa da
- 5) Giza historiaren ikuspegi kristaua eta supergizakiaren etorrera
- 6) Existenziaren zentzua; gizatasunaren superazioa
- 7) Nahimenaren metafisika (*Wille zur Macht*) eta betiereko itzulera
- 8) Hermeneutikaren hastapena

## Sarrera

Nietzsche ez dugu jada modernoa; sistema baten bilaketa, ezagutzaren posibilitatea, egiaren bilaketa... Ez du termino hauetan pentsatzen. Nietzschek, mendebaldeko pentsaeraren izpiritu erlijioso, moral, zientifiko eta politikoen diskurtsoak desmuntatu dizkizu, beraien sustrai ustelak baina baita beraien nolabaiteko beharra azaleratuz. Mendebaldeko pentsamendu osoa kritikatu eta lotsagorritu du; pentsamendu Europearraren espresio eta sustrai guztien trapu zaharrak agerian jarri dizkigu.

Baina mendebaldeko pentsamendu guztia nolabait errefusatzeko duen arren, bera ere jakintza batzuetaz baliatzen da betiereko itzulera (zientzia naturalak) eta supergizakiaren (izpirituala, filosofikoa) planteamenduak burutzeko, adibidez. Batek daki zenbat irakurketa desberdin egin diren, zenbat harroputz posmoderno sortu den bera behar bezala ez irakurtzeagatik eta zenbat sortuko diren ere auskalo. Baina Nietzscheren "irakurketa on" batek jarraitzaile sutsu asko izatetik libratuko luke! Nietzscheren idatziak ez baitira gainbegiratuz irakurtzekoak, aitzitik, patxadaz irakurriz, irakurle atentuak mila toledura aurkituko ditu, eta ez zaio hain erreza izango interpretazio osotu bat ematea. Ulergarria egiten zaigu guztiaren kontra (establezitua dagoenaren kontra, erlijioaren kontra, tradizioaren kontra esan nahi da) joan beharra daukan gazteak Nietzscheren irakurketa jakin bat egitea. Konprenitzen dugu. Nietzsche astakiloa, arrazista, guztiaren suntsitzaile, aristokrata handiuste, herriaren etsai, amoralista eta filosofia beraren azpitik ikusten duen pentsalaria da gazte batek aurkitzen duena entusiasmo osoarekin doanean, eta seguraski, horren bila itsuki doanean, ez du han beste ezer aurkituko hori baino. Jon Mirandek ere begi horiekin irakurri zuelakoan gaude<sup>1</sup>.

Galdera orain: kritika nietzschearrak jakintzaren destrukzioa al dauka helburu bezala? Nietzschek ez – jakitea hartzen al du jakitearen kontra joateko? Erantzuna argia da. Ez. Noski ezetz. Poesiak eta intuizioak ez dute jakitea galarazten. Dena den, Nietzschek lurra oinekin zapaltzera bueltatzera behartu gaitu; gizakiari umiltasun lekzioa eman dio. Baina funtsean, Metafisikari (maiuskulaz) egindako kritika da Nietzscheren obra guztia definitzen duena, hala nola, moderniarren proiektu metafisikoaren salaketa, edo hobe esan, moderniarren proiektu metafisikoak barnean dituen kontraesan batzuen salaketa.

Nietzscheren pentsamenduak influentzia zuzena bi eremutan (batez ere) izan duela esan dezakegu, modu batera edo bestera: nazismoan eta XX. mendeko pentsalari frantsesetan. Batetik Frantziako intelektualak ditugu. Jainkoa hil ostean, gizakia, ezagutza bera eta norberaren identitatea (etikari ezinbestekoa den subjektua) ere apurtzeraino heldu dira. Bestetik, Nietzscheren irakurketa oso eskasa egin duten naziak ditugu. Bere testuetako mila adibide jar litezke gaizki ulertu hori nahiko urrun joan zela erakusteko. Tamalez (edo zorionez), ordea, kontraesanez betetako pentsalaria izanik, irakurle entrenatu gabeak aski erraz topa dezake Nietzsche arrazista bat. Ulertu dezagun ordea behingoz; juduen kontrako kritikak ez doaz arrazismoaren bidetik, kristautasunaren kontrako kritikaren ildotik baizik. Azpimarratu behar da gainera, juduak, goragoko arrazatzat hartzen dituela, kristautasunaren bidez Erroma (eta Europa) menderatzea lortu baitute. Bitartekoak zilegi izan ez direla salatuta, gizaki ahularen filosofiari esker garaitu dutela esango du, erresumina iraultzaren motortzat hartuta. Azken honek ez du ordea aztarna arrazistarik. Baina Nietzsche arrazista da, ez ordea juduekin. Alemanekin seguraski...

Nietzscherentzat filosofia mitoez egina eta osatua dago; eta hala ere hortik sortutako pentsaerak ez dira mitologiako mitoak bezain ederrak. Filosofiaren mito sekularrak "izatea", "esentzia" (mundutik ikusita: natura, materia; goitik ikusita: Jainkoa, transzendentzia, Idea) eta "dualismoa" (ongia eta gaizkia, pentsamendua eta materia) dira. Dualismo guzti hauen kontraesan eta absurdoa ironiaz, askotan iseka eginez agerian jarri dizkigu. Nietzschekin filosofia mota bat akabatu egiten da giza espeziearen frakasoan ageria jarritz: "gizakitik haraindi" joatera behartuta gaude orain. Gizakitik haraindi, balioak sortzera, artea eta musika sortu eta interpretatzera, ez baitago jada beste bide posiblerik. Beraz, filosofia egiteko modu bat bukatu da, filosofia tradizionala hil egin da (Jainkoa hil da), baina orain, Schopenhauerrek ez bezala, zeina pesimismoan murgilduta

gelditu baitzen, Nietzschek gizakiaren patu tragiko hori onartu eta gainera poztasunez eta "dantza eginez" onartzera inbitatzen gaitu gu. Jainkoa hil da, balio absolutuak hil dira, metafisika hil da: eta zer! Sortu ditzagun balio berriak, esaten digu Nietzschek Zaratuaren ahotik.

### 1) Nietzsche eta Schopenhauer izpirituaren historian

Gizakiak, kristautasuna agertu aurretik, une laburretako plazeretan zeukan oinarritua bizitzaren zentzua. Kristautasuna heldu eta bizitzaren zentzua eta helburuari erantzun absolutu bat eman zion. Kristautasunak gizakiak antsiatzen zuen helburu absolutu hori bete zuen. Fedea galdu zenean, ordea, ez zen berarekin batera bizitzaren azken helburua bilatzeko antsia hori ezabatu. Aitzitik, azken helburu absolutu horren antsia handiagoa bihurtu zen. Hori da kristautasunetik jaso dugun herentzia. Eta Schopenhauerren filosofia, gizakiaren egoera horren espresio absolutua da, hor kokatzen da bera. Mundua eta gure esentzia metafisikoa nahimenean aurkitzen denez, kondenatua dago gizakia betirako asegabe geratzera. Schopenhauerrek beraz existentziaren azken helburu baten demanda dagoela erakusten du; baina aldi berean eskaera hori asetzeko ezina. Eta paradigma honetatik abiatuko da Nietzschek pentsamendua. Baina bien artean Darwin dago. Schopenhauer nahimenaren negazioan geratzen den arren, Nietzschek aski zaio giza espeziearen eboluzioaren teoriarekin bizitza baieztatuko duen helburu bat bilatzeko. Nietzschek eboluzioaren teoriatik atera duen kontzeptu berria eta pesimismotik aldenduko diona hauxe da; bizitza sujetoaren indarren intentsifikazioa dela. Horrela, bizitza bere baitan helburu izan daiteke. Bizitza bere elebaziara zuzenduta dauden indarren eta posibilitateen batuketa kontaezinezkoa da. Bizitzak berak ipintzen dio zentzua bizitzaren helburuari. Bizitza da azken instantzia beraz. Hauxe da Schopenhauerren eta Nietzschek bizitzaren teleologia. Nietzsche optimista dugu beraz, bitalista guztiak bezalatsu. Schopenhauerrek superazioaren ideia ez duenez pesimismo estremoan jo du; bizitza aspergarria baita helbururik gabe. Simmelen ustez, Nietzschek bizitzaren kontzeptzio honek esprika lezake gizakia mailakatzeko Nietzschek joera hori, ikuspegi aristokratiko hori.

*"El principio de superación hace a Nietzsche aristócrata, porque traslada el sentido de cada uno de los grados de la existencia al que se eleva sobre él. Lo más elevado no es posible sino a condición de que haya o haya habido otro que lo sea menos, al contrario de lo que ocurre con la fórmula de la igualdad ante Dios"*<sup>2</sup>

Simmelen ustez, helburu absoluturik ez dagoenean, balioek momentuak berak determinatutako emozioetara egiten dute ihes; mina eta plazerera. Bizitzari helburu bat ukatzen diona eudemonista izan behar da orduan derrigorrez. Eta min hori ezin denez ezein plazerengatik ezabatu, Schopenhauerrek hortxe du froga enpiriko ezin hobea munduaren absurdua justifikatzeko. Horregatik, nahimenaren ukazioa, bizitzaren sentimendu mingarrien erredentzioa besterik ez da izango. Nietzschek ordea, plazera eta mina bizitzaren benetako balioen zerbitzura jartzeko erabil daitezke. Zeintzuk dira ordea bizitzaren balioak? Hori da Nietzschek problema handiena. Baina hau aurrerago tratatuko da. Beraz, galdera horren erantzuna gerorako utziz, Schopenhauerrek, plazera eta mina izango dira bizitzaren balio benetakoak; Nietzschek ustez, aldiz, momentuko gauzak besterik ez dira hauek. Hau guztia jakinda erraz ondoriozta dezakegu Schopenhauerrek eternitatearen ideia tormentu ikaragarria dela. Baina Nietzschek, eternitatearen ideia, bizitzaren helburu ezaren pesimismotik salbatzen diona eta bizitzaren garaipenaren pentsamendura eramango diona izango da. Horra hor bien arteko diferentzia garrantzitsua. Eta biak ala biak, eternitatearen ideien bitartez kristautasunarekin aise lotu ditzakegunez puntu honetan, beharrezkoa da bi pentsamendu sistemen (bi pentsalarien eta kristautasunaren) arteko desberdintasuna erakustea:

*"Nolanahi ere, Schopenhauer eta Nietzschek filosofia horixe da: mundua eta historia zeharo Jainko gabe, inolako Jainko gabe, pentsatzeko saio bat, gizaki huts – hutsarekin. Baina gizakiak ere orain ez du destino naturgaindiko zerutarrik, izaki mundutar soila da eta halakotzat pentsatu behar dugu azkeneko. Jainkoari salbatzen utziko ez diogun gizona, ezin salba diezagukete gero munduak edo historiak. Destinoitsu tragiko bat, berdina da barrez (Nietzsche) ala negarrez (Schopenhauer) onartua, ez da kabitzen besterik."*<sup>3</sup>

Hori beraz. Gizakia huts hutsean geratu zaigu, erlijioaren akuilu gabe. Eternitatearen ideia munduan kokatzen da Nietzscheren kasuan. Erlijioaren kasuan ordea, hurrengo bizian, bizi zerutiarrean. Gaizki ulertu baten posibilitateari ateak itxita, eta Nietzscheren pentsamendua hobekiago kokatu dugulakoan orain, bere testuinguru politiko eta zientifikoan sartuko gara bete – betean.

## 2) Nietzscheren testuinguru zientifiko eta politikoa

*"Behin batean, eguzki – sistema zenbakaitzeko unibertso distiratsuan, izan zen astro baztertu bat non abere adimentsuek ezagutza asmatu zuten. <Historia Unibertsala>-ko minutu arranditsu eta iruzurtiena izan zen; baina, finean, minutu soila. Naturak pixka batean arnasa egin ondoren, astroa izotzak estali zuen, eta abere adimentsuak hil egin ziren, ezinbestez. Bistan da, norbaitek asma zezakeen halako fabula bat, baina hala eta guztiz, ez luke behar bezala azalduko zein tamalgarri, zein ilun eta galkor, zein antzu eta arbitrario den naturaren baitan endelgu humanoaren egoera. Hori existitu gabe, eternitateak izan dira; eta beretzat dena amaitzen denean, ez da deus gertatuko, endelgu horrentzat ez baitago misiorik bizitza humanotik haratago"*<sup>4</sup>.

Hau da 1873an egiten den idatzi labur eta eder baten hasiera: *Egiaz eta gezurraz moraletik kanpoko zentzuan (Über Wahrheit und Lüge im aussermoralischen Sinne, 1873)*, hizkuntzaren teoria oso bat bere baitan daramana, baita zientziaren epistemologiaren kritika zehatz bat. Hegelek gizakiaren eta unibertsoaren erdian Jakintza jarri dizu, logozentrismoa, europeozentrismoa eta antropozentrismoa nahastuz, guzti hauek ideiaren filosofia berberean ipiniz. Nietzscherentzat ordea, lurra, gizakia eta kontzientzia zoriak besterik ez dira, natura material baten erroreak agian. Zer gertatu da Hegelek hori planteatu eta Nietzsche bere pentsamendua suntsitzera etorri den arte? Eta garrantzitsuena: zer gertatu da Schopenhauer eta Nietzscheren artean nahimenaren balioa pesimista izatetik baieztapena izatera igarotzeko? Argi dago. Tartean, gertaera zientifiko asko. Baina nabarmenena eta orain axola zaiguna, Darwinen obra, eboluzioaren teoria. *Espezieen jatorriaz* Marxen *Kapital*-aren aurretik agertu zen (1867). Teologia eta filosofia tradizionalaren oinarriak Darwinek emandako kolpe izugarriarekin dantzan jarri ziren. Gizakiaren aspektu berri bat zetorren berekin.

Nietzscherentzat *"Ohne Hegel kein Darwin"* (Darwin Hegelen jarraipena da). Baina, argi dago Darwinek garapena eta historia ulertzeko era aldatu dituela. Darwinianoentzat gizakia zoriaren produktu bat besterik ez da. Are gehiago, giza espeziea arraroa da: materiari, bizitzari, naturari... arraro suertatzen zaio. Beraz, eboluzioaren teoriak giza natura naturaren lerroetara bueltatzera behartzen du. Zerk karakterizatzen du gizakia orain (eta beti, noski)? Hitzak edo hizkuntzak? Burezurak? Eskuak eta lanak? Barreak? Jakintzak? Eboluzioaren teoriak gizakiaren beste interpretazio bat iradokitzen du: giza espezieak naturaren bukaera seinalatzen du. Zein zentzutan? Nekea? Errorea? Akatsa? Schopenhauerren bizi-nahiaren filosofiak galdera guzti hauek sakonera eramaten ditu, haien erantzunik eman gabe. Zer da jakintza Schopenhauerrentzat? Itsuki bizi-nahi izatearen eta bizitzaren ukoaren arteko nahasketa bat, giza espeziearen baieztapenaren eta honen autodestruktzioaren nahasketa bat, munduarena bezalaxe.

Hegelengandik Nietzsche agertu arteko denbora tarte horretan, zientziak aldatu eta "garatu" egingo dira, filosofiara lehen mailako ondorio garrantzitsuak ekarriz. Lehenengo eta behin, iraultzaren bi porrot Marxen aburuz: 1848an Europa mailan; 1871an Frantzia. Nor ateratzen da garaile gertaera hauetatik? Alemania inperiala, inperialismoaren aurrekaria. Frantziak ordaindutako Gerra kontribuzioak industria alemaniarra altxatzen du. Urte gutxitan, Alemaniak bere atzerapen ekonomiko eta politikoa buelta ematen dio. Atzerapen hori desagertzean, jeinu teorikoa barbaro kultibatuak ordezkatzeko du. Burdinazko Kantzilerrak dominatzen du fronte guztietan. Botere nahiaren gorakada arranditsua ematen dela uler dezakegu. Pixkanaka, eta *Handitasun Politiko*agatik seduzitzen utzi gabe, Nietzsche ulertzen doa boterearen bilaketa dela harreman sozialak arautzen dituen, erlazio sozialaren motorea ongizatearen, diruaren eta ohoreen

bilaketa izan beharrean. Hau ez da beraz Schopenhauerren nahi – izate soila. “No hay voluntad más que en la vida, pero esa voluntad no es querer – vivir (Schopenhauer), en verdad: es voluntad de dominar. He ahí lo que la vida me ha revelado hace poco, lo que me permite, oh Sabios, resolver el enigma de vuestros corazones”, esango du Zaratustrak. Kontzientziaren soportea den subjektua ez da Descartesen *Cogitoa* ezta Schopenhauerren *bizi – nahi* hori, bestea menperatzen duen hori da, dominatzea nahi duena, *libido dominandi*. Botere – nahiak natura eta bizia argitzen ditu. Eta ez alderantziz. Horrela ulertzen dugu Nietzschek Estatuari eta Alemaniari egiten dion kritika, izan ere, estatu bismarckianoak, estatu napoleonikoaren imitatzaile denak, Europari eredu bezala balioko baitio. Testuinguru honek Nietzschek idealismo alemaniarrek sortutako estatuari egiten dion kritika ulertzeko balio digu.

“Estatua? Zer da hori? Orain irekizkidazue belarriak, zeren orain esango baitizuet neure hitza herrien heriotzaz. Estatu deitzen zaio munstro hotz guztien artean hotzenari. Hoztasun osoz esaten du gezurra; eta gezur hau ateratzen zaio ahotik: <Ni, Estatu, naiz herria.> A zer gezurra! Sortzaileak izan dira herriak sortu dituztenak, eta fede bat eta maitasun bat eseki zituzten beraien gainetik: honela zerbitzatu zuten bizitza. Deuseztatzaileak dira askotzari tranpak ezarri eta estatu deitzen dutenak: ezpata bat esekitzen dute eta ehundaka gurari”<sup>5</sup>.

XIX. mende bukaeran Estatu atakatea Alemania atakatea da Nietzschek erantzuten duena. Alemania atzean uzten du, bere patria; aberri gabeko bihurtu da (Heimatlos). Alemaniak bizia ahaztu du eta Estatuaren pisua onartu du, kultura pisutsua eta jakintza pedantea onartuz. Alemaniak, Nietzschek dioenez, zibilizazioaren desgrazia handienak daramatza bere kontzientzian. Europak bere bidea bilatu nahi izan duen guztietan, bide berri bat eraikiz, hara hor non alemanak agertzen diren behin eta berriro eta pikutara bidaltzen dituzten zerbait berria sortzeko aukera berri guztiak. XVIII. mendean Ingalaterran eta Frantzia ekintzaren eta pentsamenduaren era zientifiko berri bat deskubritzen denean, Alemaniak filosofia kantiarra ipintzen du zirkulazioan. Alemaniak Napoleon, Europan batasun ekonomiko eta politikoa izatea lortu duen bakarra, garaitzen du. Alemaniarrek beraz, balioen afera handia Europearraren begien aurrean agertzen den momentu honetan, Inperioaz bakarrik daude arduratuta. Ulegarria da beraz Nietzschek ondorioa; Alemanek Europa eta mendebaldea dekadentziaren bidetik daramatzate.

Nietzschek horrela, poeta eta artista askok egin bezala, “herri atzeratueta” egiten du ihes; ez atzeratuak direlako, baizik eta herri modernizatuak galdu duten zibilizazio apur bat kontserbatzen dutelako oraindik hauek. 1875 inguruan Alemania eta Europa – Alemaniak dominatzen duena – gogortuz doaz: Estatuaren presioa gogorregia da, eta hain dago razionalki (ideologikoki, esan nahi da) justifikatua ze ekintza eta pentsamendu guztiak zapaltzen baititu, iraultzaileak omen diren horiek barne (sozialdemokraziarenak). Izan ere, estatuaren errealitate absolutu bezala Hegelek planteatu du. Marxek kritikatu duen bezala, Nietzschek ere gogor kritikatu du Alemaniaren estatu berria. Alemanek ez dute Nietzschek Alemaniaren kontrako kritika eta estatuaren kontrakoa bereizten, ideologia estatalean murgilduta eta “alienatuta” baitaude. Estatu alemaniarrek, estatu, aberria, gizartea, jainkoa, morala, denak sartu dizkizu zaku berean (gaur Espainian gertatzen den bezala).

Horrela, Moderniatik sortutako estatu modelo absolutu horren kritikak elementu argi bat erakusten digu gerora baliagarri izan beharko zukeena (nahiz eta tamalez horrela ez izan): estatu eta metafisika batzearen errore katastrofikoak. Hori gainditu ez izana dugu modernia gainditu ez izanaren frogetariko bat.

### 3) Hizkuntzaren kritika

Alemaniar estatuaren kontrako kritikan, metafisika batetik eta *demosaren* arauak kudeatzeko “demokrazia” bestetik batzea leporatu zaio moderniarri (Hegeli batez ere). Hizkuntzaren kritikan ere, Hegelen ikuspegia eta Aristotelesen hizkuntzaren ikuspegi “naturalista” kritikatu ditu Nietzschek. Bere pentsamenduan ederrenetarikoa den testu labur batek barnebiltzen du hizkuntzaren kontrako kritika osoaren mamia (*Egiaz eta gezurraz moraletik kanpoko zentzuan* -

*Über Wahrheit und Lüge im aussermoralischen Sinne, 1873*). Jakina da Hegelentzat hizkuntzak zientziarentzat oinarri finko bezala balio duela. Hegelentzat hizkuntzak ez dauka zeinuaren arbitrariotasunik. Zeinuaren karakter abstraktuak ez du arbitrariotik ezer, abstrakzio formala eta jakintza objektiboa batera doazelako. Nietzschek ordea, Hegelek esaten duenaren kontrakoa defenditzen du. Intelektuak gezurraren arte bezala garatzen ditu bere indarrak; disimulutik jaiotzen da. Kontzientziak islatu soilik egiten du, ispiluak bezala.

Hizkuntza errealtatearen espresio egokia al da beraz? Nietzschek argi erantzuten du: ez. Erantzunaren froga: lengoai asko daude. *"Hizkuntza desberdinak alderatzen badira, argi ikus daiteke ez dagoela hitzekin egiara iristerik, ezta adierazpen egokira ere; bestela, kontrakoa gertatuko balitz, ez lirateke hainbeste hizkuntza egongo"*<sup>6</sup>. Frantsesean, "arbela" hitza maskulinoa da (le tableau), Gaztelaraz femeninoa (la pizarra), adibidez. Lengoai batean objektu bat maskulinoan jartzen da, beste batean femenino bezala<sup>7</sup>. *"Gauzak generotan banatu ohi ditugu: zuhaitza maskulino gisa ezaugarritzen dugu, eta landarea, berriz, femenino gisa. Zein estrapolazio arbitrarioak"*<sup>8</sup>. Hizkuntza batean ere izendapen eta sailkapen arbitrarioak egiten ditugu. *"<Sugeaz> mintzatzen gara: izendapenak okertzearen ezaugarria bakarrik hartzen du bere gain; beraz, zizareari ere ezar diezaiokegu"*<sup>9</sup>. Zer da hitz bat? Saussurek esango luke "txakur" hitzak *soinu* (signifikantea) bat *kontzeptu* (esanahia) batekin korrespondentzian jartzea eragiten duela. Analisi honek ordea kontzeptua (txakur) aurreuposatzen du, Nietzschek kritikatu bezala:

*"Zer da hitz bat? Bulkada nerbioso baten soinu bidezko erreprodukzioa. Baina, bulkada nerbiosotik abiatuta gugandik kanpoko kausa baten existentzia inferitzea, arrazoi – printzipioaren erabilpen faltsu eta justifikaezinari zor zaio."*<sup>10</sup>

Eta beraz, zer da "txakur" objektua? Inpresioen multzo bat besterik ez. Hitzek eta hizkuntzak gauzen eta gizakiaren arteko erlazioak bakarrik designatzen dituzte (metaforikoki). Beraz, metaforak eta metonimiak ez dira diskurtsoaren figurak, ez dira estriktoki erretorikoak; hots, hizkuntzaren jaiotzaren lehen partaideak dira. Hasierako metaforizazio hori Nietzschek esan bezala horrela gertatzen da:

*"(Hizkuntzak) Gauzek gizakiekin dituzten erlazioak izendatzen ditu soilik, eta berauek adierazteko, metafora ausartenak darabiltza. Lehenik, bulkada nerbiosoa irudi bihurtzen du! Estreinako metafora. Irudia soinu gero! Bigarren metafora. Kasu guztietan sekulako jautzia, eremu batetik arras diferentea den beste batera"*<sup>11</sup>

Hizkuntza beraz, bulkada nerbiosotik hitzera heldu arte egon diren bi metaforizazioen ondorengoa da. Hitz metaforen metafora da beraz. Eta gehiago, Nietzschek esaten digunez, hitza, berdina ez denaren identifikazioari esker bihurtzen da kontzeptu. Hegelentzat ordea, identitatearen teoria oinarrian duelarik, orria orria da, zuhaitza zuhaitza. Hau da: A da A. Baina Nietzschek kontzeptua nola sortzen den gogorarazten digu:

*"Kontzeptu oro kasu ez-berdinak parekatuz osatzen da. Egia bada ez dagoela historik beste baten berdina denik, egia da, halaber, hostoaren kontzeptua diferentzia indibidualak arbitrarioki abandonatzean osatzen dela; nota bereizgarriak ahanztean, alegia. Horrela, errepresentazioa sorrarazten da, naturan, hostoengandik bereizita, <hostoa> bezalako zerbait egongo bailitzan, jatorrizko arketipo moduko bat, hartatik hosto guztiak direlarik ehundu, diseinatu, neurtu, koloreztatu, ondulatu eta margotu."*<sup>12</sup>

Hori dela eta, hizkuntzaren jatorriak ez du prozesu logiko bat jarraitzen, eta filosofoak, egia eraikitzerakoan hartzen duen material horren jatorria ez dago gauzen esentzian. Eta beraz, zer da egia?

*"Mugitzen diharduen metafora, metonimia, antropomorfismo andana; finean, giza harremanen multzo bat, poetikoki nahiz erretorikoki goretsia, estrapolatua, apaindua, eta erabilera luzearen luzez, herri batek irmo, kanoniko eta lotesletzat hartzen duena. Ilusio direla*

*ahaztutako ilusioak dira egiak. Ahituta eta indar sentigarririk gabe gelditu diren metaforak..."<sup>13</sup>*

Egia; ohituraren eta erabilpenaren bidez metaforak direla ahaztu dugun metafora zaharkituak besterik ez! Nietzschek esan bezala, gizakiak ugaztunaren definizioa eman eta gamelu bat aztertu ondoren esaten badu; hona hemen ugaztun bat, argi dago "deskubritu" den egia guztiz antropomorfikoa dela, eta ez daukala puntu bakar bat ere gauzen egiari dagokiona. Zientziak eta filosofiak (gizakiak, azken finean) bi mila urtetan egin dutena daukagu hemen esaldi eder batean deskribatuta. Baina, egiaren auzira bueltatuz, nola ahaztu du gizakiak egiaren jatorria?

*"Metaforen mundu primitiboa ahaztuz; giza fantasiaren hondotik originalki sortzen den jatorrizko uhar gartsua gogortuz eta petrifikatuz; eguzki hau, leiho hau, mahai hau berbaitango egiak direla uste izanik; finean, ahaztuz sormen artistikoko subjektua dela bera; horrela bizi daiteke gizakia, soil-soilik, nolabaiteko patxada, segurtasun eta koherentziarekin."<sup>14</sup>*

Beraz, metafora baten gogortasunak ez du bermatzen metafora horren beharrezkotasuna eta legitimitatea. Dena den, naturalismoaren kontrako kritika argia daukagu hemen, naturalismoak determinismo bat eta munduaren orden bat (metafisika) aurreuposatzen duten heinean. Zein da ordea, hizkuntzaren kritika honen helburu nagusia? Argi dago; gizakiak hizkuntza eta mundua maila berean ipintzean sortzen den metafisika salatzea. Bi eremu hauen artean ez baitago harreman zuzenik, bien arteko zubia metaforen bidez egiten dugu; hau da, abstrakzio bidez, generalizazio bidez, komoditatearen beharrez... *"Egia horien atzetik dabilenak zera bilatzen du soilik, munduak gizakiaren barruan jasaten duen metamorfosia: mundua ulertu nahi du, baina mundu humanizatua..."<sup>15</sup>*. Gizakia subjektu artistikoa da, kreatora; metafora ederrak sortu ditu, baina azken finean, metaforak besterik ez. Nietzschek esaten digunez; *"Temo que no vamos a desembarazarnos de Dios porque seguimos creyendo en la gramática"*<sup>16</sup>. Hitzek munduko gauzaren bat zuzenean designatzen dutenaren sinesmena metafisika hutsa da. Niaren eta subjektuaren superstizismoa gramatikaren sedukzioztat dauka Nietzschek. Eta sedukzio horretan jauzi izana leporatu dio Descartes. Pentsatzea aktibitate bat da, ohitura gramatikal baten ondorioa besterik ez. Pentsatzea, Nietzscherekin, gure desioen erlaxatze bat besterik ez da. Zein izan da Descartesaren errorea orduan?

*"Cogito, a decir verdad, no es más que una sola palabra, pero su sentido es complejo. En su célebre cogito se encuentra: primero, algo que piensa; segundo, yo creo que soy el que piensa; tercero, pero aun admitiendo que este segundo punto no sea seguro, ya que es materia de creencia, el primer punto, contiene igualmente una creencia, la de que 'pensar' sea una actividad a la cual sea necesario imaginar un sujeto, aunque no fuese 'algo'; y el ergo sum significa lo que expresa y nada más. Pero hay una creencia en la gramática... (...) Las fórmulas cogito, cogitat, cogitatur contienen todas una 'creencia' o una 'opinión'. ¿Quién nos garantiza que gracias al ergo no nos llevemos algo de esta creencia o de esta opinión, aunque no queda más que esto: "Algo es creído, luego algo es creído", un círculo vicioso!"<sup>17</sup>*

Hemen daukagu beraz, moderniararen eta filosofia guztiaren kontrako bigarren kritika handia. Cogitoak bezala subjektuak ere, arazo bera du oinarrian, hizkuntzaren beste superstizio soil bat izaten jarraitzen du:

*"...hori hizkuntzaren sedukzioarengatik bakarrik da (eta hizkuntza hari egindako arrazoien erroretik errakuntzengatik), zeinak ulertzen eta gaizkiulertzen duen egite oro egile batek, "subjektu" batek baldintzaturik dagoela. Hau da, herriak tximista eta haren erlantzaren bereizten eta bigarrena egite bat bezala kontzeptuak duen bezala, tximista deritzan subjektu baten egintza bezala, horrela herriaren moralak bereizi egiten du sendotasuna haren kanporatzeetatik, indartsuaren atzetik substrato indiferente bat balego bezala, kanporatzeko libre dena eta, baita sendotasuna ez kanporatzeko ere. Baina ez dago horrelako substratorik;*

*ez dago inolako "izaterik" egitearen, jardutearen, bilakatzearen atzean; "egilea" fikzioz gehitu zaio egiteari -egitea da dena."*<sup>18</sup>

Ekintza da dena! Subjektua kontzeptua da, ez errealtatea. Beharrezko kontzeptua, ezin da ukatu, baina errealtatea faltsutzen digu subjektu askeak. Subjektu ekintzaile soilarekin geratu behar gara hizkuntzaren erabilpen txarretik libratu nahi badugu beraz. Eta etikan bezala, gauza bera gertatzen zaigu estetikan. Estetika modernoari egindako Nietzscheren salaketa argia da; ederraren kontzeptuak subjektu kreaizailea ahaztu egin du.

*"El hombre cree que el mundo mismo está sobrecargado de belleza, - olvida que él es la causa de ella. Únicamente él le ha hecho al mundo el regalo de la belleza, ¡ay!, sólo que de una belleza muy humana, demasiado humana... En el fondo el hombre se mira en el espejo de las cosas, considera bello aquello todo aquello que le devuelve su imagen: el juicio bello es su vanidad específica..."*<sup>19</sup>

Kantek, afera estetikoak artistaren (kreaizailea) esperientzietatik enfokatu beharrean, artea eta edertasuna ikuslearen posiziotik hausnartu ditu, eta hori eginda, nahi gabe, ikuslea bera sartu du ederraren kontzeptuan<sup>20</sup>. Hizkuntzaren problema bera dugu beraz berriz. Ze ondorio ateratzen dugun honetatik? Hizkuntzak ez duela egiaz hitz egiten, metaforen bidez eraikitzen ditugun perspektibak ematen dizkigu gehienez. Hitzek egiten dutena, mundua kontzeptualizatzea da, hizkuntzaren bidez errealtatea instant batean gelditzea, izoztea. Baina errealtatea ez da geldia, kontzeptuari eskapatu egiten zaio. Hizkuntzak beraz, hasierako metafora horietatik, munduaren eta gizakiaren metafisika bat egiten du. Filosofiak eta kristautasunak ordea, ez dute bakarrik munduaren metaforizazio (sinplifikazio) bat egiten, mundutik kanpoko metafisika (horixe baita metafisis, meta – haraindi; fisis – natura) bat (metafisika baten metafisika bat beraz) ere, Nietzschek esan bezala, hasieran izan den subjektu kreaizaile hori ahaztu dutelako. Eta horrela, Nietzschek filosofiari eta kristautasunari egiten dien kritikan sartzen gara bete – betean.

### Benetako munduaren eta ageriko munduaren arteko gatazka

Kristautasunak zein filosofiak, bi mila urtez, ageriko munduaren eta benetako munduaren arteko bereizketa egin izan dute. Dualismo horretan, benetako mundua, Idea edo zerua da, eta ageriko mundua, kontingentziarena, Ideien munduaren kopia da (Platon). Horixe da Nietzschek ezabatu nahi duena. Horrela, kristautasunak sortutako benetako mundu horrek dituen ezaugarri guztiak suntsituko ditu. Kristautasunaren moralaren kontrako kritika esaldi labur honetan laburbiltzen da:

*"No existen fenómenos morales, sino sólo una interpretación moral de fenómenos..."*<sup>21</sup>.

Hau filosofia eta kristautasun guztiaren kontrako kritika izugarria da! Ez dago ekintza moralik, egotekotan munduak orden moral bat izan beharko lukeelako. Eta hori absurdorik absurduena da. Nietzscheren moralaren gaineko kritikaz gehiegi idatzi delakoan moraletik kristautasunaren kosmobisiora egingo dugu jausi. Nietzschek diosku kristautasunaren "benetako munduak" ez daukala errealtatearekin inongo harremanik. Irudimenezko *kausak* asmatu ditu: Jainkoa, arima, nia, izpirituak, nahimen askea (ez askea ere); baina baita irudimenezko *efektuak*: bekatua, erredentzioa, grazia, zigorra, bekatuen barkapena. *Izaki imaginarioak* tratatzen ditu, izpirituak eta arimak. Zientzia natural antropozentrikoa maneiatzen du, kausa naturalen esplikazioen absentiak. Eta, irudimenezko psikologia bat dauka, idiosinkrasia erlijioso – moral gezurrezko bat asmatu duena; damua, kontzientziaren ahaldura, deabruaren tentazioa,... Eta nola ez, irudimenezko *teleologia* bat: Jainkoaren erreinua, azken juizioa, betiko bizitza. Nietzschek irudimenezko mundu hau, ametsen munduen azpitik jartzen du, ametsen munduak errealtatea irudikatzen duelako; besteak ordea, errealtatea faltsutzen du, desbaliotu egiten du, errealtatea ukatzen du. Hori da garrantzitsuena; kristautasunak errealtatea ukatzen duela.

*"Todo aquel mundo de ficción tiene su raíz en el odio a lo natural. ¿Quién es el único que tiene motivos para evadirse, mediante una mentira, de la realidad? El que sufre de ella. Pero sufrir de la realidad, significa ser una realidad fracasada..."<sup>22</sup>*

Nietzscheren garaian, kristautasunaren kontrako pentsalariak eszeptizismoa eta ateismoa moztarro bezala jantzi dizute. Horregatik, ateismo europar guztia teologia kristau kamuflatua dela esaten digu behin eta berriz Nietzschek, Jainkoa ukatzen duten arren, munduari Jainkoak emandako zentzia eta kalitate denak gordetzen baitituzte. Gaur egun, horixe gertatzen denaren susmoa baino zerbait gehiago dugu tamalez. Nietzschek beraz, Kristautasunak mundua ukatzen du, ez dituelako bere ezaugarriak onartzen. Simmelentzat, Nietzschek hain kritika hau gaizki ulertu baten ondorio besterik ez da. Nietzschek ez du kristautasunaren transzendentzia kontuan hartu eta balio moral soilen prisma kritikatzen du kristautasuna. Gainera, ez da ohartu kristautasunak eta berak indibiduoaren izatearen kalitateei berdintsu ematen diela garrantzi gehien.

*"...lo que ambos dan mayor importancia es a las cualidades del ser del individuo, que hallan para Nietzsche su culminación en el concepto de vida, y en el cristianismo la hallan como elementos de un orden divino más elevado, dentro de la cual poseen (...) (Nietzsche bezala) la doble cualidad de valores finales y de miembros de un conjunto superior a ellos."<sup>23</sup>*

Hemen, etikaren terrenoa sartzen bagara ere (gerorako utziko dena), Nietzschek kristautasunaren kontrako kritikak honen elementu batzuk ez dituela kontuan hartzen erakutsi nahi da. Galdera garrantzitsua orain: zein da hasierako motiboa kristautasuna sortzeko; transzendentziaren beharra (Simmel) ala errealtatea ukatuz (honen beldur izanik) fikziozko mundu bat sortzeko beharra (Nietzsche)?<sup>24</sup> Freudek ukatu egin du transzendentziarena (transzendentzia erlijioso behintzat) gizakiaren berezko beharra denik *Ilusio baten etorkizunean* (gizakia razional den geroztik behintzat). Dena den, galdera hori erantzutea ezinezkoa dirudenez, hauxe da esan daitekeen bakarra; errealtatea ukatzea, berau onartzen ez den heinean, hori kristautasunaren espezifiko dela. Izan ere, adibidez, Greziako mitoak, munduaren fabulak dira; baina ez dituzte bilakaera eta munduaren ezaugarri nagusiak (mina esaterako) alboratzen. Ondorioz, Nietzsche transzendentziaz ahaztu da, ados, baina transzendentziaren ideiak ez du justifikatzen munduaren kontrako errealtate bat asmatzea. Beraz, Nietzschek kritika kontuan hartzekoa da ezezaguna baitaigu transzendentziaren ideia errealtateari beldurra izatetik sortu den edo ez.

Kristautasunak bezala, filosofiak Platonez geroztik ere, fikziozko errealtateak asmatzeko joera izan duela salatuko du. Filosofiak, benetako mundua eta ageriko munduaren arteko bereizketa egin digu ere. Honen (filosofia historiaren) laburpen txikia egiten digu Nietzschek *Crepúsculo de los ídolos* liburuan. Sei puntutan laburbiltzen digu: 1. egoera: Platon, benetako munduan bizi da, berau ezagutzen du, hori da bere mundua. 2. egoera: benetako mundua eskuraezina bihurtu da, baina gupidatsuari prometatzen zaio. Platonen Ideia kristautu egiten da. 3. egoera: benetako mundua eskuraezina da, frogaezina, baina pentsatua den heinean, kontsolagarria, obligazioa, inperatiboa da. Eszeptizismoaren aroa beraz: Ideia sublimatu egin da ("iraultza" kantiarra). 4. egoera: benetako mundua, eskuraezina? Edonola ere, ez – eskuratua, eta beraz, ezezaguna, eta beraz, ez da kontsolagarria, ez behartzailea. Zertara obliga gaitzake ezezaguna den zerbaitek ba? (Positibismoaren aroa) 5. egoera: benetako mundua, jada ezertarako balio ez duen Ideia, utilitatea galdu baitu. Platon lotsagorritu egin da. 6. egoera: benetako mundua ezabatzean ageriko mundua ere ezabatu dugu!<sup>25</sup>

Horrela, akats luzeenaren amaiera dator, gizatasunaren puntu gorena, Zaratustraren (supergizakiaren) etorrera. Izan ere, benetako mundua sortu duenak, bizitza argumentu bezala hartu du eta akats larria burutu du hori ginda:

*"Nos hemos moldeado un mundo en el que podemos vivir, con la suposición de cuerpos, líneas, superficies, causas y efectos, movimiento y reposo, forma y contenido: ¡sin estos artículos de fe nadie soportaría ahora vivir! Pero no por eso quedan ya demostrados. La vida no es un argumento; entre las condiciones de la vida podría estar el error"<sup>26</sup>*

Gizakiak, lehen esan bezala, subjektu artistikoa denaren kontzientzia galdu du. Eta Nietzschekin horren berreskuratzea gertatzen da. Orain ez du inporta juizio bat faltsua den edo ez, kontziente baikara juizio faltsuak beharrezkoak ditugula;

*"La falsedad de un juicio no es para nosotros ya una objeción contra él (...) La cuestión está en saber hasta qué punto ese juicio favorece la vida (...); y nosotros estamos inclinados por principio a afirmar que los juicios más falsos (de ellos forman parte los juicios sintéticos a priori) son los más imprescindibles para nosotros, que el hombre no podría vivir si no admitiese las ficciones lógicas, si no midiese la realidad con el metro del mundo puramente inventado de lo incondicionado, idéntico-a-sí-mismo, si no falsease permanentemente el mundo mediante el número, - que renunciar a los juicios falsos sería renunciar a la vida, negar la vida. Admitir que la no-verdad es condición de la vida"<sup>27</sup>*

Juizio faltsuak alboratzea bizitza alboratzea litzateke beraz. Filosofoak ordea, subjektu kreatzailea denaren kontzientzia izan behar du uneoro. Sortzen diren judizioak ezin dira beraz bizitzari muzin eginez burutu, aitzitik, bizitza baieztatu behar dute. Nietzschek, horrela, errealitatea irudikatzearen joera baztertzeraz eta "egia" ezagutzearen ideia baztertzeraz bultzatzen gaitu. Gizakiak, Platonen "benetako" mundua gezurrezkoa dela ohartzean, ez du orain kontsolamendua bilatzen animalia egoera transzenditzen duelako, baizik, bere burua sortzen duen animalia mortala den heinean<sup>28</sup>. Horixe da Nietzschek filosofiari egiten dion kritika eta ekarpen erraldoia.

#### 4) Esperientzia estetikoaren esperientzia tragikoa da

Nietzscheren pentsamenduaren metafisikara jauzi egin aurretik, ezin dugu aipatu gabe utzi esperientzia estetikoaren ikuspegi nietzschearra. Izan ere, esperientzia estetikoaren, Kierkegaarden eta Schopenhauerren baino gogorrago, Nietzschekren krisiaren gune bihurtzen da: balioen krisia, idealena eta ideologiaren, moralaren krisia eta egia-ideiaren krisia. Azken finean, Jainkoaren heriotzak, azken fundamentu baten faltak eragiten duen krisia. Dualismo metafisikoaren heriotza: bai epistemologian, ontologian, moralean zein estetikaren.

Esperientzia tragikoa Nietzschekren, tragikoa denaren esperientzia da. Izan ere, idolo guztien fikzioa agerian uzten du gizakia lurzoru eta justifikazio metafisiko gabe utziz (jainkoaren kasuan, bere sufrimenduaren "espektadore" gabe utziz gizakia), baina aldi berean, gizakia bizitza den bezalakoxe onartzera bueltatzen du. Hementxe, inpultso dionisiarra eta apolineoa dira azaldu beharrekoak. Inpultso dionisiar: musikala, identitatearen galera eta naturarekin eta bat-arekin bategitea, mozkorraldi sentsazioa. Eta bestea, inpultso apolineoa: plastikoa, formak egiten dituen existentzia, ametsaren inpultsoa. Inpultso dionisiarra erlijiositate orgiastiko baten antza du. Inpultso dionisiarra, aldiz, grekoen genialitatea da, naturaren krueldadea begirada kontenplatibo eta hotzarekin ikusteko instintua da hau, negazio nihilistan jauzi barik. Tragedia, bi instintuen harremanean jaiotzen da. Musikaren izpirituarekin jaio eta formarekin (logosarekin) hiltzen da. Apolo eta Dionisoren arteko besarkada esperientzia estetiko handia da, baina mortala. Tragediak ezin du bere egia erakutsi kontraesanean jauzi gabe. Heroi dionisiarrak instrumentu apolotarra erabiltzen du, forma – hitza - logosa. Hau da tragikoa; munduaren irrazionaltasuna erakusteko, berau ukatzen duenera jo behar dela (logosera). Gizakiaren galderek ez dute erantzunik jasotzen (arrazoia eramatean du gizakia erantzun ezin ditzakeen galderak pentsatzeraz, gogoratu Kant), eta hori da komikoa. Beraz, tragedia hau, tragikomedia bihurtu zaigu. Eta tragedia honek aurrerago ikusiko dugunez, Heidegger bete betean harrapatuko du.

Baina estetikara bueltatuz, eta laburki Nietzschekren perspektibismoak nola estetikaren efektu berdina duen ikusteko, testu argigarri eta eder batek emango digu klabea estetika guztiaren kritika perspektibismo antropomorfitik baten gabeziaren afera dela ikusteko.

*"El hombre cree que el mundo mismo está sobrecargado de belleza, - olvida que él es la causa de ella. Únicamente el le ha hecho al mundo el regalo de la belleza, ¡ay!, sólo que de una belleza*

*muy humana, demasiado humana... Considera bello todo aquello que le devuelve su imagen: el juicio bello es su vanidad específica."*<sup>29</sup>

Noski, ezin beste modu batera izan. Filosofian, nola etikan, nola estetikan, perspektibismo antropomorfitikoa, edo sormen artistikoa jabetzera egiten digu Nietzschek dei ozen. Gero ikusi da ez duela deusik lortu tamalez, dogmatismora eta erlatibismoa gaizki ulertzen duen subjektibismoa egin baitugu ihes.

##### 5) Giza historiaren ikuspegi kristaua eta supergizakiaren etorrera

Estetika albo batera utziz, bere pentsamenduaren zutabeetara joko dugu orain. Nietzschek duen historiaren ikuspegia, existentziaren zentzua, supergizakiaren ideia, eta botere nahia eta betiereko itzuleraren teoria azalduko ditugu orain. Historiaren ikuspegiarekin hasiko gara, supergizakiaren ideia hobeto ulertzen lagunduko digulakoan. Gutxi gora behera, denok dakigu kristautasunak egiten duen giza historiaren irakurketa teleologikoa. Labur – laburrean, hau da: hasiera batean, Jainkoak lurra sortu eta aspertu egiten denez gizakia sortzen du. Hau ere ez aspertzeko bere saihestak batetik emakumea sortuko du. Paradisuan daude bi gizakiok. Jainkoak edozer gauza jan edo egin dezaketela esaten die, ongiaren eta gaizkiaren arbolatik ezin dute jan ordea. Suge maltzurak xaxatuta, azkenean zuhaitz debekatutik jaten dute. Jainkoa ohartu egiten da. Jainkoak beraz, bere esana bete ez dutelako paradisetik bidali eta sufritzera kondenatzen ditu. Hementxe beraz hauxe ikusten da; gizakia egoera mingabea egon da, egoera naturalean. Jainkoari ez dio obeditu eta beraz lehen bekatua deritzona burutu du. Gizakiaren dekadentzia eta mina hasiko da orduan hemendik aurrera. Bibliako azken liburuan, San Juanen apokalipsian ikusten dugu, hasierako bekatua ordainduta, soilik merezi duen gizakia bueltatuko dela berriz hasieran egondako egoerara. Beraz, hauxe ikus dezakegu; hasierako egoera normala, lehen bekatua, sufrimendu garaia (historia osoa), eta azkenik, hasierako egoerara, paradisa, buelta (merezi duenak). Ze zerikusi daukan honek Nietzschekin? Nietzschek eta kristautasunaren historiaren ikuspegiaren formak berdin berdinak direla! *Genealogía de la moral* liburua erakusten du gordinen tesi hau. Sokrates aurretiko greziar garaian, nobleak dominatzen du, aristokratak.

*"Balio-judizio zaldun-aristokratikoen erakuntza fisiko ahaltsua, osasun jori, aberats eta gainezkatua ere badute aurespostutzat."*<sup>30</sup>

Garai horretan kontzeptuek, legeek, eskubideek,... balio politikoa dute, ez morala<sup>31</sup>. Aristokratak indarraren bidez dominatzen du, "lege naturala"-ren bidez. Baina erlijio kristauaren bitartez apaiza dator balio naturalen transbalorazioa egitera. Juduek aristokraten baloratzeko era (ona =noblea =boteretsua =ederra =zoriontsua =Jainkoak maitatua) beraien dekadentziaren balioengatik aldatu dute: balioen inbertsioa egin dute. Orain miserableak, pobreak, inpotenteak, sufritzen dutenak... dira onak<sup>32</sup>. Erlijio kristauak, erresuminaren indarrarekin, balio aristokratikoen dekadentziaren moralaren mozorroarekin garaitu ditu. Juduekin moralean esklaboen iraultza hasten dela esango digu Nietzschek horrela. Hemen beraz, lehen bekatua ikus dezakegu. Gizakia egoera naturalean egon da, eta kristautasunak erresuminaren bitartez egoera horretatik (bizitzatik) irauli du.<sup>33</sup> Sokrates ere sartzen du esklaboen iraultza honen baitan.

*"Con Sócrates el gusto griego da un vuelco a favor de la dialéctica (...) con la dialéctica la plebe se sitúa arriba. Antes de Sócrates, la gente, en la buena sociedad, repudiaba los malos modales (...) Las cosas honestas, lo mismo que los hombres honestos, no llevan sus razones en la mano de ese modo."*<sup>34</sup>

Dena den, Nietzschek behin eta berriz azpimarratuko du gizaki aszeta edo apaizaren bitartez, gizakia animalia *interesgarria* bihurtu dela. Giza arimak sakontasuna lortu baitu iraultza honi esker, izpiritualizatu egin da, animalien gainetik jarri da; artea, kultura eta historia sortu dira "iraultza" honi esker. Baina Platon eta Kristautasunaz geroztiko historia guztia dekadentziaren historia izan da.<sup>35</sup> Nietzschek, balioen transbalorazioa egitera gonbidatzen gaitu gu, gizaki dekadente hori gainditzeko. Orduan, gizakiaren hasierako egoera horretara bueltatzera gonbidatzen

ote gaitu? *Genealogia de la morale*ko hirugarren pasartean, supergizakiaren ezaugarriak azaltzen dira, hasierako "bekatu" horrekin apurtu eta esklaboen morala bizkarretik kenduz etorriko den gizaki berria. Askok ulertu izan dute supergizaki (*Ueberschensch*) hori Sokrates aurreko greziako "astopetro" hori dela. Irakur dezagun ordea Nietzscheren supergizakiaren deskripzioa:

*"Zer esan nahi du, beraz, ideal aszetikoak filosofo batengan? Nire erantzuna – aspaldi igarri bide zaio- da: hori begiestean filosofoak irribarre egiten dio izpiritualitate goren eta ausarteneko baldintza-optimum bati, – horrekin ez du "existentzia" ukatzen, aitzitik, horretan bere existentzia eta bere existentzia soilik baieztatzen da..."*,<sup>36</sup>

Ideal aszetikoak existentzia baieztatzen du, horixe da Nietzschek dioskuna. Hauxe da supergizakia, bizitza kontserbatzen eta baieztatzen duen gizakia. Eta behin eta berriz ageri zaigu (liburu honen hirugarren tratatuan) supergizaki hori super – izpirituala dela. *Honela mintzatu zen Zaratustran* ere ikus dezakegu supergizaki izpiritual hori. Dena den, orain interesatzen zaiguna, supergizakia Nietzschek duen giza historiaren ikuspegi kristauarekin lotzea da. Juduek (erlijio kristauak) eta Sokratesek (filosofiak), gizakiaren egoera naturala irauli dute; lehen bekata egin dute. Hortik geroztiko filosofia guztia *dekadentziaren* filosofia izan da. Eszeptizismoa nahiz ateismoa moral dekadenteaz mozorrotuta egon dira beti. Nietzschek, orduan, esango digu supergizakia datorrela. Beraz, bekatzeko egoera irauliko da berriz. Argi ikus dezakegu beraz giza historiaren ikuspegiaren forma berbera dutela kristautasunak eta Nietzschek. Etorriko den gizaki hori ordea, lehen esan bezala, super – izpirituala da. Eta galdera logikoa orain: nola uztartzen ditu kontrakoak diruditen bizitzaren baieztapena eta aszetaren etorrera?

*"Baina itxuraz aszetarengan agertzen dena bezalako burukontraesate bat, "bizitzaren kontrako bizitza", zentzugabekeria hutsa da – hori argi eta garbi dago oraingoz – fisiologikoki kontsideraturik eta ez psikologikoki. Burukontraesate hori ezin liteke itxurazkoa baizik izan. (...) ...ideal aszetikoa endekatzen ari den bizitza baten babes- eta osasun-instintutik jaiotzen da, (...) Ulertzen zait noski: apaiz aszetiko hori, bizitzaren ustezko etsai hori, ukatzaile hori, - hain zuzen ere bizitzako baietzen potentzia iraurarazle eta sortzaileetako da..."*<sup>37</sup>

Aszeta bizitzaren kontserbatzaile eta baieztatzailea! Horixe da Nietzschek dioskuna behin eta berriz. Hori da supergizakia. Ideal aszetikoak ordea, supergizakian alde negatiboa edo positiboa izan lezake. Positiboa, balio berriak sortzeko gai den heinean. Hau izpiritualizazio sendo baten bidez lortu lezake, Zaratustrak iragartzen digun bezala. Baina alde negatiboa ez da ahantzi behar; izpiritualizazio hori mundua ukatuz, erresuminez egin dezakeelako, alegia (kristautasunak bezala). Supergizakia izpirituala baita, baina ez du ezeren aurka erreakzionatzen. Horregatik, supergizakia egoismo edo eudemonismoaren goratzea dela interpretatu duenak ez du Nietzsche ondo irakurri. Hedonismoak, pesimismoak zein utilitarismoak, gauzen balioa plazera eta minarekin neurtzen dute. Supergizakiaren erabilpena,

*"... para proclamar el derecho al placer libertino, en vez de aprovecharla para cumplir el deber de alcanzar el grado superior en el desarrollo objetivo de la humanidad; teniendo presente este deber, el eudemonismo subjetivo mal disimulado de los "nietzscheanos" se aparece como la vuelta a los grados inferiores, (...) se muestra como aquella decadencia de vida, que no ha hecho aquí más que cambiar de objeto..."*<sup>38</sup>

Supergizakia ez da egoismoaren predikazioa ezta. Izan ere, Nietzschek pertsonalismoa ideal objektibo bihurtu dizu eta erradikalki egoismotik berezitu. Hori kontuan hartuz, azkenean supergizakiaren etorrerarako fedea eskatzen digu Nietzschek. Nahimenaren manifestatzeko lekua fedea denez (fedea positiboki ulertuta), eta ez arrazoimena, Nietzschek fede bat eskatzen du bizitzaren alde, supergizakiaren alde.

*"Ez dago, zorrotz epaituz gero, "aurreposturik gabeko" zientziarik, horrelako zientzia baten pentsamendua pentsaezina da, paralogikoa: beti egon behar du han filosofia batek, "sinesmen"*

*batek horretatik zientziak norabide bat, zentzu bat, muga bat, metodo bat, izateko eskubide bat atera dezan.*"<sup>39</sup>

Horixe da behar dena supergizakia etortzeko; meta bat, helburu bat, fede bat (zentzu honetan esan daiteke Nietzscheren pentsamendua irrazionalista dela). Helburu eta fede bat, nahimenaren metafisikak eta betiereko itzulera ematen dizkio gizakiari<sup>40</sup>. Beraz, orain, Nietzschek existentziari nola ematen dion zentzua azalduko dugu; gizatasunaren ideia guztiz pertsonalista batekin, eta gizatasunaren (eta gizakiaren) ikuspegi hori bi teoria erraldoietan oinarrituz: botere – nahia eta betiereko itzulera.

#### 6) Existentziaren zentzua: gizatasunaren superazioa

Nietzschek, pentsalari guztiek bezala, badu existentziaren zentzua emango dion gizakiaren eta existentziaren ikuspegi bat. Kristautasunak bezala, munduan balioaren eramaile absolutua den pertsonalitatea existentziaren helburu eta maila-goreneko zentzuarekin uztartu nahi ditu. Kristautasunak Jainkoaren ideien bitartez lortzen du hau; Nietzschek, gizatasunaren ideiarekin, zeinaren superazioa beraren indibiduo perfektuen bidez lortzen den. Nietzschek, horregatik, gizatasunaren kontzeptua gizartearen kontzeptuari kontrajartzen dio.

*"Sin duda, cada época necesita un concepto en este lugar de su sistemática izpiritual, un concepto que sea lo bastante elevado y lo bastante preciso para servir a todos los intereses y necesidades de explicación posibles, que posea la mezcla de mística e inmediatez para que se encuentren en él los movimientos del sentimiento y del pensamiento y para que los unos adquieran en los otros un apaciguamiento provisional."*<sup>41</sup>

Simmelek esan bezala, gizakiaren historian zehar, gehienetan, kontzeptu horiek absolutuki dogmatikoak izan dira, Jainkoaren kontzeptua kasu. Nietzschek, gizatasunaren ideiarekin "gizartea – humanitatea" batasunarekin apurtzen du. Nietzscheri gizatiarra dena interesatzen zaio, ez gizarteko kontuak. Gizartean, indibiduo fikzio bat da, atomoa bezala. Indibiduo zentzu horretan, errore bat da. Gizatasuna goreneko indibiduotan aurkitzen da, gizartearen forman bizitzeak inposatzen duen limiteetatik askatzen diren indibiduotan. Hemendik ondorioztatzen da gizaki guztiak ez direla berdinak. Izan ere, guztiak berdinak balira, multzo handi bat goreneko indibiduo bat baino garrantzitsuagoa izango litzateke. Nietzscheren indibidualismo hau ez da liberala, gizakiak *a priori* baitira desigualak. Berari interesatzen zaion indibiduo da "...*aquellos indibiduos por cuyas cualidades el tipo humano adquiere un grado más elevado que el actual*"<sup>42</sup>. Horrela, guztientzat bertute bakarra dagoenaren kontzeptzio sokratikoari kontrajarriko zaio. Bizitzaren garapenerako, atzean geratu den gehiengoari erreparatzen badiogu, garapen indibiduala baztertuz, superazioaren teoriaren kontra goaz. Aitzitik, gizatasunaren indibiduo gorenetan dago bizitzaren benetako garapena. Gizatasunaren benetako helburua gizakia gainditzea baita; ez gizakia zerbait eskasa delako, baizik beragan dagoen indar positiboa intentsifikatu behar delako.

Schopenhauerrek bai Nietzschek uste dute gizakia gainditua izan behar dela: lehenarentzat, gizakia da gainditua gertatzen dena (nahimenak gainditzen baitu); bigarrenarentzat, ordea, gizakiak bere burua gaindi dezake. Bien arteko diferentzia hau errukian aurkitzen da. Eta ikusten denez, Nietzscherentzat hau ez da elementu etiko bat, gizakiaren (bizitzaren) izatea baita soilik etikoa dena eta balioa duena, eta ez bere itzal eudemonistiko subjettiboa (errukia, esaterako). Horregatik gizakien arteko distantzia natural horren kontrakoa da berdintasunaren ideia. Hemen agertzen zaigu Nietzscheren eta sozialismoaren oposizio radikala. Eta horrelaxe aurkitu digu Nietzschek existentziaren zentzua beraz; gizatasunaren balioa goreneko indibiduoetan aurkitzen da, bizitza indibidualean ere beraz, eta intentsitate handiko momentuek dute balio gorena. Hauxe da bizitzaren kulminazioa, gure existentziak zentzua aurkitzen duen eremu labainkorra.

#### 7) Nahimenaren metafisika (*Wille zur Macht*) eta betiereko itzulera

Aitzinean esan dugu datorren supergizaki horrek bizitzeko helburu bat izateko botere – nahiean eta betiereko itzuleran izan behar duela fedea eta oinarria. Beraz, bi ideia hauekin sartuko gara bete – betean orain. Kantek bere “metafisika” berezi horretatik kanpo utzi duen berbaitango gauza, Schopenhauerrek eta Nietzschek nahimena dela esango dizute. Hau ezin daiteke raziokalki ezagutu, intuizio mailan baizik. Lehen esan bezala, Schopenhauerren nahimena itsua da; Nietzschek, botere gehiagoren nahia da. Irautearen aldeko borroka salbuespena da, indar gorena botere gehiagoren nahia baita. Argi esaten digu Nietzschek; mundua botere nahia da, ez beste ezer:

*“Quiero decir, concebir este mundo no como una ilusión, una «apariencia», una «representación» (en el sentido de Berkeley y Schopenhauer), sino como algo dotado de idéntico grado de realidad que el poseído por nuestros afectos, (...) como una especie de vida instintiva (...) ¿como una forma previa de la vida? (...) En último término, la cuestión consiste en si nosotros reconocemos que la voluntad es realmente algo que actúa, en si nosotros creemos en la causalidad de la voluntad: (...) entonces tenemos que hacer el intento de considerar hipotéticamente que la causalidad de la voluntad es la única. La «voluntad», naturalmente, no puede actuar más que sobre la «voluntad» -y no sobre «materias», (...) Suponiendo, finalmente, que se consiguiese explicar nuestra vida instintiva entera como la ampliación y ramificación de una única forma básica de voluntad, - a saber, de la voluntad de poder, como dice mi tesis (...) entonces habríamos adquirido el derecho a definir inequívocamente toda fuerza agente como: voluntad de poder. El mundo visto desde dentro, el mundo definido y designado en su «carácter inteligible», - sería cabalmente «voluntad de poder» y nada más. –”<sup>43</sup>*

Mundua (botere nahia) indar finituen multzo bat da. Honen justifikazioa horrela eman izan da: indarrak infinituak izango balira, noizbait sortuak izan beharko liriateke, eta beraz, noizbait ez litzateke indarrak egongo. Munduko indarrak finituak izatea esplikazio teleologiko edo determinista bati eskapatzen diote beraz. Horrela, indarrak finituak izatean, munduan indar bat gutxitzean, beste batek hartzen du indar handiagoa. Azken finean, indarren oreka bat dago, orden bat; leku batetik gutxitzen denean, bestetik handitzen da. Indarren multzo honen batasuna nahimena da eta hauxe da Nietzschek oinarri metafisikoa. Horrela, bizitzaren helburua, erremediorik gabeko indarren akumulazio bat besterik ez da. Botere – nahi hau Nietzschek existentziaren zentzuaren kulminazioa da. Zein da botere – nahi honen esanahia?

*“La altura absoluta de un ser humano está condicionada por su altura relativa. Es decir, que un hombre representa un grado elevado en la escala social (...) la elevación de la vida lleva consigo una intensificación de fuerzas”<sup>44</sup>*

Beste gizaki batzuei irabazten eta gainditzen gauzatzen den indarren akumulazio hau da pertsonalitatearen intentsitatearen eta kualitate individualen (indarra eta noblezia) eramailea. Botere nahia goratu egiten da bizitza goratzen denean, Nietzschek bizitza, gehiago bizitza esan nahi baitu. Botere – nahi hau ordea, betiereko itzuleraren ideia da guztiz lotua. Hauxe da betiereko itzuleraren esanahia; momentu oro, eternalki biziko bagina bezala bizi *behar* gara, betiereko itzulera bat existituko balitz bezala. Munduaren prozesua denbora infinitu baten gertatzen bada, eta indar eta materia finituen menpe, elementu hauekin egin daitezkeen konbinazio guztiak denbora finitu batean agortu beharko liriateke, eta orduan, jokia berriro hasi beharko litzateke. Betiereko itzulerak esan nahi du beraz, existentzia guztia eternoa dela. Ikus dezagun Kantek inperatiboarekin duen antza:

*“La piedra de toque para la moralidad de una acción está (Kantengan), en que el que obra pudiera querer el principio por el que dirige su acción como una ley absolutamente válida.”<sup>45</sup>*

Kantek ekintzaren ondorioetan jartzen du begirada (gizartearen konbentzioa), eta Nietzschek, inmediateki espresatzen den sujetoaren izatean. Baina biek helburu bera dute buruan: ekintzaren balioa kasualitatearen, hau da, denbora eta zenbakiaren eremutik haraindi jartzea. Bien etikek dute arazo bera horrela: Hegelek kritikatu du, Kantek agente moral kontziente horrek,

inperatibo kategorikoaren formaren azpian, edozer gauza egin dezakeela, beti ere kontzientziaz egiten duen bitartean. Horrela, konduktaren arau hertsia zirudien inperatibo kantiarrak, ez dauka inongo mugarik. Berdina pasatzen da ordea Nietzscheren betiereko itzulera eta supergizakien ideiekin. Zer egin dateke botere nahiaren izenean?<sup>46</sup> Betiereko itzulerak, Kanten inperatiboak baino gogorrago behartzen gaitu gainera ekintzaren erantzule izatera. Baina, Kanten inperatiboa bezala, guztiz formala den heinean, bizitza goratzen duten balioak guztiz erlatiboak direnez, gizaki bakoitzak eman diezaioke edukia bai inperatibo kategorikoari baita betiereko itzulerari berak nahi duen eran. Baina, formalismo hertsia ezingo dizu etika praktikoa bezala funtzionatu, edukia sartu bezain laster kontraesanean jausiko baita.

Arazo hori agerian jarrita, jarrai dezagun. Betiereko itzulerak, kosmobisioa den aldetik, bi interpretazio izan ditu; arautzaile etiko bezala ulertu izan da batetik, eta bestetik, metafisikaren beharraren erantzuletzat interpretatu da. Hemen biak batu eta gizakiak dituen bi irrika horien batura dela esango dugu. Kontuan hartzen badugu metafisikaren historia, izatea eta bilakaera batzearen bilaketaren historia dela (Heraklito eta Parmenides geroztik), pentsa dezakegu Nietzscheren betiereko itzulerak batasunaren funtzio hori betetzen duela.

*"Los acontecimientos singulares y limitados son un devenir ininterrumpido, un fluir sin descanso, y toda su sustancialidad se diluye en la corriente de Heráclito; pero como estos acontecimientos retornan al infinito, adquieren un ser en cada punto singular, se convierten en un punto firme, al cual vuelve indefinidamente aquella corriente del devenir. Así, lo finito reviste forma de lo infinito y con esto el devenir reviste al ser; ahora (...) el ser aparece dentro de la teoría del eterno retorno como lo finito, de forma determinada, concreto, y sólo la causalidad del devenir proporciona la infinitud."*<sup>47</sup>

Betiereko itzuleraren ideia beraz, infinitudearen irrikaren eta mugatasunaren irrikaren arteko sintesia da. Horrelaxe, Nietzschek, supergizakia, betiereko itzulera eta botere nahiaren ideien arteko kosmobisio bat planteatu digu, onargarria edo onartezina izan daitekeena, baina berak, behin eta berriz, beretzako soilik dela errepikatzen diguna.

## 8) Hermeneutikaren hastapena

Nietzschek, "egia ezagutzearen" ideia baztertzeraz bultzatu gaitu, eta beraz, perspektibismora zuzenean (ez dena batere erlatibista, askok horrela ulertu nahiko dizuten arrren). Kantek ezagutzaren subjektu hutsa aurkeztu digu, nahimenetik aske dagoen subjektua, minarengatik eta denboratik aske. Baina hori ez da existitzen. Ez dago arrazoi pururik, ez dago berbaitango ezagutzarik.

*"hemen beti eskatzen zaigu inondik ere pentsatua izan ezin daitekeen begi bat pentsatzea, orientaziorik batere ez duen begi bat, zeinean trabaturik egon beharko luketen, absente egon beharko luketen indar aktibo eta interpretatzaileek, zeinek egiten baitute, hala ere, ikustea zerbait-ikustea izatea..."*<sup>48</sup>

Hauxe da Nietzscheren perspektibismoa edo hermeneutika. Begiak modu batera begiratzen du, minaren, denboraren eta bilakaeraren menpe. Perspektibaren menpe beraz. Interpretazioaren menpe (grekoz, *hermeneia*<sup>49</sup>). Hermeneutika beraz, ez da soilik metodo bat: giza kreazioak modu zehatz batean interpretatzen dituen filosofia ulertzeko era bat da, kreazio bakoitza, hizkuntza zehatz batekin, testuinguru sozial eta historiko baten menpe, etabar, hau da, giza kreazio bakoitza (dela idatzi edo konstrukzio erlijioso, filosofiko, mitiko, literario, etiko, politiko...) perspektiba arras desberdin baten menpe sortzen eta egituratzen dela ulertzen duena. Ezin baititugu giza kreazioak beste modu batera ulertu. Horrela, Nietzschek Kanti egiten dion kritikara bueltatuz, alegia, subjektu hutsa existitzen ez dela leporatzen dionekoa, errealitatea hobe ezagutu nahi badugu beraz, subjektu huts horren ordez, subjektu desberdinak jarri beharko ditugu.

*"Ikuste perspektibista bat soilik dago, "ezagutze" perspektibista bat soilik; eta zenbat eta handiago den gauza bati buruz bere hitza esaten utziko diegun afektuen kopurua, zenbat eta handiago den begien kopurua, gauza bera ikusteko erabiltzen jakingo dugun begi desberdinena, hainbat osoagoa izango da hartaz dugun "kontzeptua", hainbat osoagoa izango da gure "objektibitatea"."*<sup>50</sup>

Ezagutzeko eta ikusteko modu perspektibista bat existitzen da soilik. Zer esan nahi du honek? Ezagutzeko modu bakarra existitzen dela: hermeneutikoa. Gizakiak interpretatuz ikusten du, perspektibaren lurzorutik. Horixe zaio berezko. Orduan, zergatik dauka filosofoak perpektibatik kanpo kokatzen denaren ilusioa?

*"Todos ellos (filosofos) simulan haber descubierto y alcanzado sus opiniones propias mediante el autodesarrollo de una dialéctica fría, pura, divinamente despreocupada (a diferencia de los místicos de todo grado, que son más honestos que ellos y más torpes - los místicos hablan de «inspiración» -): siendo así que, en el fondo, es una tesis adoptada de antemano, una ocurrencia, una «inspiración», casi siempre un deseo íntimo vuelto abstracto y pasado por la criba lo que ellos defienden con razones buscadas posteriormente."*<sup>51</sup>

Nietzschek esaten digu, Heideggerrek aurrerago esango digun bezala, modernia bukatzeaz geroztik gizakia ohartu dela ja intelektuak (arrazoiak) ez duela munduaren ordena harrapatzen (munduak ordena baldin badu). Arrazoiak gizakiaren estruktura mentalaren arabera pentsatzen edo interpretatzen du mundua. Kantek esan digu ja arrazoiak giza estrukturaaren arabera pentsatzen duela mundua, baina arrazoi hau perspektibaz kanpokoa zen, eta beraz, faltsua. Hegelek historia sartu digu baina izpiritua aurkeztu digu, perpektibatik kanpo dago ente absolutu bat. Nietzschek jarriko du lehenengoz perspektibaren menpe mendebaldeko metafisika guzia: gizakiak bere estrukturaaren arabera *interpretatzen* duela mundua (eta ez pentsatu soilik) esango digu. Perspektibaren menpe. Baina oraindik, arrazoiaren beraren aurretik ere, erabaki autokontzientea edo irrazionala dago, norbaitek temati tentazioa izango balu, hala ere, arrazoi salbatzeko. Nietzschek onartuko digu betiereko itzuleraren ideia bera ez zaigula heldu arrazoi dialektiko baten bidez, intuizio (erabaki) batez baizik. Gero bai, betiereko itzulera arrazonatu liteke; baina, hasiera batean, erabaki autokontzientea dago. Filosofian, hala nola zientzian, teoriak, hasieran erabaki irrazional bat izaten du, teoriaren enbor metafisikoa (eta beraz, bere oinarria) osatuko duen gorputza erabaki horrek baldintzatzen duelarik. Gero arrazonaketaren (Filosofia) edo esperientziaren (Zientzia) bidez heldu gaitezke teoria hori errefusatu ala onartzera<sup>52</sup>. Horrela, hemen ez da ezer deskubritzen, sortu baizik. Gizakiak perspektibak sortzen ditu; berari berezko zaion arrazoiaren, sentimenen eta intuizioaren laguntzaz.

*"(Nietzsche) Concebía, más bien, el conocimiento de sí como una creación de sí. El proceso de llegar a conocerse a sí mismo, enfrentándose a la propia contingencia, haciendo remontar a su origen las causas, se identifica con el proceso de inventar un nuevo lenguaje, esto es, idear algunas metáforas nuevas."*<sup>53</sup>

Perspektibak edo metaforak sortze horretan, Nietzschek, artista mota bi bereizten dizkigu; alde batetik, gizaki razionala (zientzialaria), eta bestetik, gizaki intuitiboa (poeta). Lehena ezartistikoa da, intuizioak izututa bizi da. Bigarrena irrazionala da, abstrakzioez trufatzen da. Biek dute gauza bera komunean; *"biek nahi dute bizia meneratu"*<sup>54</sup>. Lehenak, erregularitasuna nahi du; besteari, *"liluraz eta pozez apaindutako bizia iruditzen zaio erreala"*. Gizaki intuitiboak kultura bat sor dezake. *"Kontzeptuen eta abstrakzioen gidapean bizi denak, zoriogaitzetik defendatzeko erabiltzen ditu beroriek"*. Gizaki intuitiboak sufritzen duenean, bizikiago sufritzen du, ez baitu esperientziatik ikasten. Hauxe dugu azken finean indar apolineoaren eta dionisiararen borroka amaigabea, gizakiaren berezko borroka. Intuizioez ala kontzeptuez operatzen badu ere, gizakia, beti artista. Baina Nietzschek, egiaren gaitetik jakinduria ironiko – tragikoa jarri dizu, bizitza, honen kalumniatzaile eta razionalizatzaileengatik defendatzen duen instinto artistikoa; jakinduria Dionisiarra.

---

<sup>1</sup> (Azpimarketak nireak dira)“Nik ere uste dut lur-zati honetako biztanle guztioi Europar on izatea dagokigula, orain dala eun bat urte Nietzschek jadanik aolkatzen zigun bezela. Euskalerriaz erri-ugarte bat egitea, garbizale zenbaitek amesten duketenaz, oker baño okerrago litzake. Halaber «Euskadi ta mundua» abertzale internazionalisten itzburua ezin onar dezakegula derizait. Alabañan beste gizonekin ditugun lokarriak era askotako dira. Lenengoak, eta sendoenak noski gure senitartekoekin ditugunak. Gero Euskaldunak oro alkartzen gaituzten lokarriak: *odola*, izkuntza, oiturak, ots, erri berezi bat egiten gaituzten elementu guztiak. Bañan Europako beste erriekin ere ba ditugu lokarri bereziak: *endazkoak* leenik, ez baita euskal-enda bat emparantzako europar endez bestelako litzakenik, eta gure odola moldatu duten gaii antropologikoak oro europar *enda-aindi zuriarenak* dira: gero, ez baiditeke uka euskal-kultura bat izan ere ba denik, geure kultura hau beste Europarrenak bezelaxe, iturburu komun jakin batzuetarik dator horietatik garrantzikoena baitira Erromako kaisar-erria. Eliza ta germanismua. Beste Europarrok atzeritarrak ba dira ere guretzako, izaeraz ez zaizkigu arrotz: hek eta gu «kultur-aro» bereko gerade. Kultur-aro hortatik landa ditugu egiazko, ots, Afrika, Asia ta Ameriketako kolorezko jendeak, eta arrotz hoik ere maitatu ta anaitzat eduki bear ditugula ba diñosku etikak edo erleginoak, delako maitasun hori izaerazgandiko da; bañan hemen politikaz mintzo naiz, ez theologiaz.” Euzkadi eta Europa. Iturria: *Obra osoa (I)*, Jon Mirande Aiphosorho (Luis Haranburu Altunaren edizioa). Hiria, 1999.

<sup>2</sup> Simmel, Georg  
*Schopenhauer y Nietzsche*.  
28. orria.

<sup>3</sup> Azurmendi, Joxe  
*Schopenhauer, Spengler, Nietzsche Miranderen pentsamenduan*.  
51. orria.

<sup>4</sup> Andonegi, Xabier  
*Nietzsche eta Freud, filosofian eragile*.  
101. orria. (Egiaz eta gezurraz moraletik kanpoko zentzuan).

<sup>5</sup> *Honela mintzatu zen Zaratustra*.  
Xabier Mendiguren. 67. orria.

<sup>6</sup> Nietzsche, Friedrich  
*Egiaz eta gezurraz moraletik kanpoko zentzuan*.  
105. orria

<sup>7</sup> Adibidez, alemanieraz, eguzkia “die Sonne” da; ilargia aldiz “der Mond”.

<sup>8</sup> Nietzsche F., *Egiaz eta gezurraz moraletik kanpoko zentzuan*.  
104. orria

<sup>9</sup> Ibid.

<sup>10</sup> Ibid.

<sup>11</sup> Ibid.  
105. orria.

<sup>12</sup> Ibid.  
106. orria.

<sup>13</sup> Ibid.  
106-107 orriak.

<sup>14</sup> Ibid.  
109. orria.

<sup>15</sup> Ibid.

- 
109. orria
- 16 Nietzsche, Friedrich  
*Crepúsculo de los ídolos*.  
55. orria.
- 17 Nietzsche, Friedrich  
La voluntad de poder  
Edaf – 2005, 680 pag, Traductor: Anibal Froufe  
97. parrafo, 65. orria.  
\*Kontuan hartu behar da liburu hau ez zuela Nietzschek idatzi. Nietzschearen arabera bere testu batzuk hartuz eta bere interesen arabera moldatuz osatu zuen obra da Nietzschearen izenean dagoen *La voluntad de poder*.
- 18 Nietzsche, Friedrich  
*Moralaren genealogía*.  
Lehen tratatua, "Ona eta Gaiztoa, ona eta txarra." 13. aforismoa.
- 19 Nietzsche, Friedrich  
*Crepúsculo de los ídolos*.  
104. orria.
- 20 Nietzsche, Friedrich  
*Moralaren genealogía*.  
Hirugarren tratatua. 6. Aforismoa.
- 21 Nietzsche Friedrich  
*Más allá del bien y del mal*. Sentencias e interludios.  
107. orria. 108. aforismoa.
- 22 Ibid.  
45. orria.
- 23 Simmel, Georg  
*Schopenhauer y Nietzsche*.  
157. orria.
- 24 Nietzschearen ustez, *La gaya ciencia* agertzen den bezala, "La necesidad metafísica no es el origen de las religiones, como pretende Schopenhauer, sino sólo un retoño de las mismas." 228. orria.
- 25 Nietzsche, Friedrich  
*Crepúsculo de los ídolos*.  
59-60 orriak
- 26 Nietzsche, Friedrich  
*La Gaya ciencia*.  
205. orria. S 121.
- 27 Nietzsche, Friedrich  
*Más allá del bien y del mal*.  
25-26 orriak S4
- 28 Rorty, Richard  
*Contingencia, ironía y solidaridad*.  
47. orria (La contingencia del yo)
- 29 Nietzsche, Friedrich  
*Crepúsculo de los ídolos*.

- 
104. orria. 19. aforismoa.
- 30 Nietzsche, Friedrich  
Moralaren genealogia  
Lehen tratatua. 7. Aforismoa.
- 31 Nietzsche, Friedrich  
Moralaren genealogia. Lehen tratatua. 6. aforismoa. "...lehentasun politikoaren kontzeptua lehentasun arimazkoaren kontzeptu bihurtzen delakotik..."
- 32 Nietzsche, Friedrich  
Moralaren genealogía.  
Lehen tratatua. 7. aforismoa
- 33 El Anticristo liburuan salatuko du, iraultza hori emateko Jesukristoren figura faltseatu egin duela, Pablo apostoluaren bitartez.
- 34 Nietzsche, Friedrich  
*Crepúsculo de los ídolos.*  
46. orria.
- 35 Gogoratu behar dugu ordea, Nietzscek, historiaren kritika balioen prismetik egiten duela.
- 36 Nietzsche, Friedrich  
Moralaren genealogía.  
3. tratatua. 7. Aforismoa.
- 37 Nietzsche, Friedrich  
Moralaren genealogía.  
3. tratatua. 13. Aforismoa.
- 38 Simmel, Georg  
*Schopenhauer y Nietzsche.*  
187-188 orriak.
- 39 Nietzsche, Friedrich  
*Moralaren genealogia.*  
3. tratatua. 24. Aforismoa.
- 40 Norbaitek pentsa lezake supergizakiaren eta betiereko itzuleraren artean kontradikzioa dagoela. Hauxe, supergizakia zubi bezala interpretatu ez duenak soilik pentsa lezake. Supergizakia ez baita gizakiaren estadio definitibo bat. Eta beraz, orain supergizakia datorren bezala, betiereko itzulerak agintzen duen bezala, hau ere noibait desagertu eta aurrekoa errepikatuzera kondenatuak gaude.
- 41 Simmel, Georg  
*Schopenhauer y Nietzsche.*  
161. orria.
- 42 Ibid.  
164. orria.
- 43 Nietzsche, Friedrich  
*Más allá del bien y del mal.*  
65-66 orriak. 36. aforismoa
- 44 Simmel, Georg  
*Schopenhauer y Nietzsche.*

- 
175. orria.
- 45      *Ibid.*  
189. orria.
- 46      MacIntyre, Alasdair  
*Historia de la ética.*  
Paidós, Barcelona, 2002  
218. orria.
- 47      Simmel, Georg  
*Schopenhauer y Nietzsche.*  
194. orria.
- 48      Nietzsche, Friedrich.  
Moralaren genealogía.  
3. tratatua. 12. Aforismoa.  
\*Genealogia de la moraleko hirugarren pasartean saia zaitezte “zentzua”, “interpretazioa” eta “esanahia” hitzak bilatzen. Liburu hau askok hermeneutikaren hastapenatzat jotzen dute.
- 49      *Hermeneia* hitza, platonek “el modo de aprehender, de captar algo ofrecido por el mundo exterior” dela diosku.  
Enciclopedia Garzanti. Ediciones B. 1993. Bartzelona.
- 50      Nietzsche, Friedrich.  
Moralaren genealogía  
3. tratatua. 12. Aforismoa.
- 51      Nietzsche, Friedrich  
*Más alla del bien y del mal.*  
26. orria.
- 52      Horrelaxe funtzionatzen du zientziak: erabaki bat hartu, teoria bat asmatu (sortu), eta errealitatera joaten da ia teoria errealitatera ondo egokitzen den ikustera.
- 53      Rorty, Richard  
*Contingencia, ironía y solidaridad.*  
47. orria.
- 54      Nietzsche, Friedrich  
*Egiaz eta gezurraz moraletik kanpoko zentzuan.*  
114-115 orriak. \*Parrafo honetan kakotx artean agetzen diren esaldiak liburu eta horri hauetatik daude hartuak.